

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Osasunbideak bihotz- eta arnas-gelditzeagatik hildakoen eta bizirik dauden pazienteen organo-ematea sustatuko du

2012an Nafarroan 54 organo-transplante egin ziren guztira: giltzurrunetako 32, gibealeko 17 eta bihotzeko 5

Lunes, 25 de febrero de 2013

Nafarroako Ospitale Guneak [asistolian](#) [organoak emateko](#) protokoloa abian jarriko du aurtengo udan (bihotz- eta arnas-gelditzearen ondoriozko heriotza, organo-emate eta transplantearen prozesua egiteko denbora nabarmen murrizten duena),

Estatuko Transplanteen Erakundeak (ONT) egindako dokumentu baten arabera, Osasuneko zuzendari nagusi Cristina Ibarrolak iragarri duenez.

Gainera, Osasun Departamentuak bizirik dagoen organo-emateak egindako organo-ematea sustatuko du (halako 4 kasu izan ziren 2012an, 2011n bezala eta 2010ean baino bat gehiago); horrek tartean dauden eragile guztien motibazioa nahiz kontzientziazioa handitzea eskatuko du (Adona, Alce redo Athena organo-emateen elkarteak esaterako, transplanteetan inplikaturako osasun-langileak...).

Azkenik, Departamentuak Lizarra eta Tuterako ospitaleetara zabalduko du Nafarroako Ospitale Gunean aplikatzen den detekzio-eredua garuneko heriotza izan dezaketen pazienteak goiz identifikatzeko eta monitorizatzeko eta organoak emateko mediku-kontraindikaziorik ez dutenak.

Hiru estrategia horiekin Osasun Departamentuak transplante-beharrak asetzeko dauden organo-emate nahiz organoen eskasia arindu nahi du; hori gertatzen da heriotza entzefalikoagatik izandako heriotzak gutxitu egin direlako, eta tradizionalki heriotza-mota horretan oinarritu da Espainiako transplanteen eredua.

Gutxitze hori izan da errepidean izandako hildakoen kopuruak nabarmen behera egin duelako, Espainiako ZIUen funtzionamendua eta osasun-sistema hobetu direlako eta, oro har, larrialdien artatzea hobetu delako: iktuseko unitateen sorrera (2008tik 4.800 paziente artatu dira iktusagatik); ahalegin terapeutikoa mugatu da (LET) edo bizi-euskarriaren tratamenduarena (LTSV); edo bihotz- eta arnas-gelditzeen pazienteen suspertzea hipotermiarekin, arazo entzefalikoak... murrizten dituztenak.



Ebakuntza-gela.

Osasuneko zuzendari nagusiak –Nafarroako transplanteen koordinatzaile Javier Aldave eta CHNko transplanteen koordinatzaile José Elizalderen laguntzarekin– azaldu du asistolian egindako organo-emateak konplexutasun handiagoa duela eta, xede horretarako. CHNk bertako langileak prestatzen ari dela, ONTk eskatutako protokoloak eta abar landuz.

Aipatutako hiru neurriak organoak emateko eta transplanteetarako Espainiako ereduan tradizionalki aplikatu izan diren hiru ildoetara erantsiko zaizkie: organoak emateko eskubideari buruzko kontzientziario soziala eta haren "balio etiko eta sozial handia"; organo-emate potentzialak detektatzea heriotza entzefalikoetatik; eta familiarren ezezkoak murriztea, beti "oso txikia" izan den kopurua (Nafarroan 1, 2012an).

12 organo-emate 2012an

Heriotza entzefalikoetatik hildako pertsonak detektatzeaz eta organoak ateratzeaz, erabiltzeaz arduratzen den CHNk 2012an guztira izan zitezkeen 17 organo-emate ikuskatu zituen. Lau baztertu egin ziren mediku-kontraindikazioetatik eta familiak kasu batean ezezkoa eman zuen; beraz, benetako organo-emateen kopurua 12ra murriztu zen (2011n 21 organo-emate izan ziren). Organo-emate horiei esker, 22 giltzurrun erabili ahal izan ziren; 12 gibel; 5 bihotz; 2 birika eta 3 pankrea. Organo-emateari esker, hezurrak (8 gorpu) eta korneak (10) erabili ahal izan ziren.

Nafarroan, CHNren, Nafarroako Unibertsitate Klinikoen eta Espainiako transplante-sarearen laguntzari esker, guztira giltzurruneko 12 transplante egin ziren 2012an, haietako 4 bizirik zeudela; gibeletako 15 transplante; eta bihotzeko 5 (2011n bezala). Guztira, 54 organo-transplante. Hezur-muinean, 33 autotransplante egin ziren (2 pediatriakoak) eta 21 transplante alogeniko (organo-emateak), 12 ahaidetu gabekoak. Gainera, 24 bilaketa egin ziren (3 bete gabe).

Itzarote-zerrendari dagokionez, 2012ko abenduaren 31n, Nafarroan 74 pertsona giltzurrun baten zain zeuden (6 aldi baterako kontraindikazioekin); 11 gibelaren zain; 1 bihotzaren zain eta beste bat birikaren zain.